

Heriotzek gora egin dute 2007ko bigarren hiruhilekoan

2007ko apirilean, maiatzean eta ekainean 4.304 biztanle hil ziren; horietatik %52 gizonezkoak izan ziren eta %48 emakumezkoak

2007ko bigarren hiruhilekoan izandako 4.304 heriotzek %3ko hazkundera eragin zuten, iazko aldi beraren aldean, Eustatek landutako datuen arabera. Lurraldez lurralde, Araban 540 lagun hil ziren, Bizkaian 2.362, eta Gipuzkoan 1.402.

Tumoreengatik 1.398 pertsona hil ziren (%32,5), lehenengo kausa izan zelarik. Bigarren kausa nagusia zirkulazio-sistemako gaixotasunak izan ziren eta 1.234 pertsonaren heriotza eragin zuten (%28,7). Hirugarren tokian arnas aparatuko gaixotasunak daude; 359 heriotza eragin zituzten (%8,3).

Heriotzen kausak ez ziren berdinak izan sexu batean eta bestean: gizonezkoen artean, tumoreak (%40,1) hilgarriago gertatu ziren zirkulazio-aparatuko gaixotasunak (%25,6) baino; emakumezkoen artean, berriz, heriotza-kausa nagusia gaixotasun kardiobaskularrak (%31,9) izan ziren, eta tumoreak (%24,2) bigarren.

2007ko bigarren hiruhilekoan izandako hildakoen artean, 22 urtebetetik beheragoko haurrak izan ziren: 8 mutiko eta 14 neskato.

2007ko bigarren hiruhilekoaren hazkunde begetatiboa positiboa izan zen, 759 biztanle gehiago. Saldoak positiboak izan ziren hiru lurraldeetan: Araban 211, Bizkaian 200 eta Gipuzkoan 348.

1. taula: Euskal AEko heriotzak sexuka, heriotza-kausaren arabera. Hiruhilekoen alderaketa.

	2007ko 2. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoa (2007ko 1.hiruhilekoa)		Aurreko urteko hiruh. bera (2006ko 2. hiruhilekoa)	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
HERIOTZAK	4.304	100,0	5.140	100,0	4.184	100,0
Gizonezkoak	2.238	52,0	2.577	50,1	2.217	53,0
Emakumezkoak	2.066	48,0	2.563	49,9	1.967	47,0
HERIOTZA-KAUSA						
GUZTIRA	4.304		5.140		4.184	
Tumoreak	1.398	32,5	1.406	27,4	1.307	31,2
Zirkulazio-aparatua	1.234	28,7	1.557	30,3	1.283	30,7
Arnas aparatua	359	8,3	598	11,6	372	8,9
Txegoste-sistema	235	5,5	255	5,0	219	5,2
Istripuak	148	3,4	164	3,2	150	3,6
Gainerako gaixotasunak	930	21,6	1.160	22,6	853	20,4
GIZONEZKOAK	2.238		2.577		2.217	
Tumoreak	897	40,1	877	34,0	849	38,3
Zirkulazio-aparatua	574	25,6	700	27,2	587	26,5
Arnas aparatua	193	8,6	313	12,1	209	9,4
Txegoste-sistema	116	5,2	149	5,8	118	5,3
Istripuak	87	3,9	107	4,2	101	4,6
Gainerako gaixotasunak	371	16,6	431	16,7	353	15,9
EMAKUMEZKOAK	2.066		2.563		1.967	
Tumoreak	501	24,2	529	20,6	458	23,3
Zirkulazio-aparatua	660	31,9	857	33,4	696	35,4
Arnas aparatua	166	8,0	285	11,1	163	8,3
Txegoste-sistema	119	5,8	106	4,1	101	5,1
Istripuak	61	3,0	57	2,2	49	2,5
Gainerako gaixotasunak	559	27,1	729	28,4	500	25,4

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Martín González Hernández

Tlf:+34-945-01 75 49 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es